

SAKANAKO LEXIKOAREN INGURUAN

Jose Luis Erdozia

Aberatsa oso dugu Sakanako lexikoa eta bizirik dago oraindik mendeetako lexiko hori, hirurogei urtetik gorako bertako biztanleen baitan. Eta aberatsa dela diodanean ez diot hitz kopuruari soilik erreparatzen. Kontzeptu bera adierazteko era ezberdinak dira haranean, isoglosa lexiko oso markatuak nabarmendu daitezkeelarik eta euskalki ezberdinetako burutzapenak, muturrekoak izanik hauek ere, antzeman daitezke bertan, bai ekialdekoak, nola mendebaldekoak, edo erdialdekoak. Honetan, seguru asko, haranaren kokapen geografikoak, Euskal Herriaren erdi-erdian, zerikusi handia izanen du, eta harana bera gauzatzen duten mendizerrek (Urbasa, Andimendi eta Aralar) ere zeresanik ez. Mendeetan zehar euskal artzainen topaleku izan dira aipatu mendizerrak eta horrek, dudarik gabe, harremanetan jarri ditu Euskal Herriko txokoetako hizkerak.

Nik lan honetan, duela lau urte jasotako lexiko bilduma eta azken urteotan ikasi ditudan Sakanako hitz berriak, ikuspegi ezberdinetatik aztertu ditut: onomatopeien ugaritasuna, esamolde eta aditz perifrasiak, maileguez gure haraneko lexikoan duten garrantzia, zenbait hitzen berrezarpen lexikalaren proposamena, bitxikeriak, isoglosa lexiko garrantzitsuenak, beste euskalkie-kiko hurbilpenak, Sakanako hizkeren polifonia, ...

HITZ ONOMATOPEIKOAK

Asko dira soinueta oinarritutako hitzak Sakanan, jarraian ikusiko dugun moduan:

anjubek ein Haur jaioberriari, hitzak esaten hasi baino lehenago eskatzen zaizkion «azalpen» modukoak. Haurraren lehen soinuen irudikapena da *an-ju. Asi da guu aurre anjubek eitten!* (Hasi da gure haurra anjuak egiten!)

atije Doministikua, ez tul indartsua. *Atijeka asten neizenien enok atertzen, trebe nok dozenaat botatzie bata bestien atzeti!* (Atijaka hasten naizenean ez nauk atertzen, trebe nauk dozena bat botatzea bata bestearen atetik!)

- barra-barra ein, birri-barra ein** Hautsi, txikitu. Bigarrenak, kontrolik gabeko ekintza ere, hau da, pentsaturik gabekoa, adierazten du. *Auzuortakuek barra-barra ein ziegubiek txabola!* (Auzo horretakoek barra-barra egin zigutek txabola!)
- barrastadan** Bat-batean, «barrast» batean. *Arriyek barrastadan etor zizkieguk geñaa!* (Harriak barrastadan etorri zaizkiguk gainera!)
- baunbako** Danbatekoa, batez ere ateen haizearen eraginez ematen dutena. *Eman deen baunbakuaki etxe guzie dantzan utzi dik!* (Eman duen danbatekoarekin etxe guztia dantzan utzi dik!)
- beeka** Ardiak marruma eginez. *Beeka ziek axui guziek, ardiyei otseitten!* (Beeka zaudek axuri guztiak, ardiei hots egiten!)
- bixi-bixi ein** Leunki, samurtasun osoarekin laztandu. *Gustua eiñen nookek orri bixi-bixi!* (Gustura eginen niokek horri bixi-bixi!)
- bor-bor** Likido bat, odola bereziki, ugari isuritzen ari denean. *Eskuturreko zeiñe ebai ta odola bor-bor atia zikiyoban!* (Eskumuturreko zaina ebaki eta odola bor-bor atera zitzaioan!)
- borbosta** Haserretu eta berehala jenio bizian, bor-bor, erantzuten duen pertsona. *Ze gertatuakik, mutikua! Len ez yitzen ain borbosta!* (Zer gertatu zaik, mutikoa! Lehen ez hintzen hain borbosta!)
- burrin-burrin** 1. Erleek ateratzen duten soina. Gaztelaniako «zumbido» ordezkatzan du. 2. Berriren bat guztion ahotan dabilela esateko erabiltzen da. *Elduen astien ezkonduko yeizela burrin-burrin züillek!* (Heldu den astean ezkonduko haizela burrin-burrin zabilek!)
- dal-dal, daldalei** Dar-dar, dardara. *Dal-dal niok goiz guzien!* (Dar-dar nagok goiz guztian!)
- dalka ein** Talka jo. Normalean animalia adardunekin erabiltzen da. *Ariyek dee dalka eitten ye!* (Ahariek ere talka egiten diate!)
- dan** Ezkila kolpea, danbada. *Lasei guaño, dan bakarra jo dik ta!* (Lasai oraino, dan bakarra jo dik eta!)
- danba-danba, dinbi-danba** Kolpe errepikatua edo atsedetik gabekoa adierazten du. Elurra eta kazkabarrari ere lotzen zaio.
- ddaldalero** Ahula, dulebrerik gabekoa. Beti dal-dal dagoena. Gaztelaniako «tembloroso, miedica» ordezkatzan du. *Zetako bier dek txakur ddaldalero luoi?* (Zertako behar duk txakur daldalero hori?)
- di-da, ti-ta, ri-ra** Momentuan, oso azkar, berehala. *Ori di-da betien akatuko yau!* (Hori di-da batean akabatuko diagu!)

dinbili-danbala Zuzen edo era egokian ez dabilena. Gaztelaniako «dando tumbos» adierazten du.

diz-diz ein Dirdira egin. *Ardue yan da begiyek diz-diz eitten ziebiek!* (Ardoa edan eta begiek diz-diz egiten zidatek!)

durrundara Ostotsaren soinua edo honen antzekoa Lakuntzan. Harrabotsa. *San Sastiñetan durrundara Lakuntzeko karriketan!* (San Sebastianetan durrundara Lakuntzako karriketan!)

fal-fal Harroa edo ero samarra. *Ze andre fal-falak ziek erriyontan!* (Zer andre fal-falak zaudek herri honetan!)

firi-fara Batetik bestera, norabide jakinik gabe, haizea esate baterako. *Firi-fara zailtziien biyertie, ez tezubie gauz onik eiñen!* (Firi-fara zabiltzatzen bitartean, ez duzue gauza onik eginen!)

firi-firi Haizeraren mugimendu leuna. *Gustua yoten gettuk Etxarriko plazan aizie firi-firi daillienien!* (Gustura egoten gaituk Etxarriko plazan haizea firi-firi dabilenean!)

fuako Jenio txarraren ondorioz botatako hasperena. *Neyoo yet yozein aserreal-di, aittan fuakue beño!* (Nahiago diat edozein haserrealdi, aitaren fuakoa baino!)

fuki-fuki ibilli Zerbaiten edo norbaiten atzetik ibili. Normalean, neska eta mutilen arteko hasierako harremanak adierazteko erabiltzen da. *Gurie altan zikobau ta or züiltziek erriko txakur guziek fuki-fuki gu etxe inguben!* (Gurea altan zaukaagu eta hor zabiltzak herriko txakur guztiak fuki-fuki gure etxe inguruan!)

furra-furra Purra-purra, gustura, gozo-gozo. Gehienbat loarekin lotzen den onomatopeia dugu hau. *Antxe geldittuek ezpondan, furra-furra lo!* (Hantxe gelditu duk ezpondan, purra-purra lo!)

furrut ein, furrutekan Zurrut egin, zurrutaka. Edaterakoan egiten den soinuaren onomatopeia dugu. *Ik ze nei dek, zopak eta furrut?* (Hik zer nahi duk, zopak eta zurrut?)

gir-gir-gir Olioak irakin egiterakoan ateratzen duen soinua. Pertsoneri ere egokitzen zaie, bere onetik aterata daudela adierazteko. *Ori eztek arte oneskue, yozin gauzangati jartzen dek gir-gir-gir!* (Hori ez duk arte onezkoa, edozein gauzarengatik jartzen duk gir-gir-gir!)

gurrumiau Katuaren urrumea. Urdiainen *marramiau*.

ijili-ajala Umore onean, barrez. *Aste guzie yaamaten yau ijili-ajala, ezeen ajolaipee!* (Aste guztia eramaten diagu ijili-ajala, ezeren ajolarik gabe!)

- ju lu** Ulua, otsoena esate baterako. Bestalde, norbaitek gaizki abesten duela adierazteko ere erabiltzen da. *Aik ittuben ju lu klasiek, bota zittubenak!* (Haiek hituen ju lu klaseak, bota zituenak!)
- karrask** Hausturaren onomatopeya dugu hauxe. *An infernuben izanen da marraka eta ortz karraxka.* (Han infernuan izanen da marraka eta hortz karraska)
- kask** Golpearen onomatopeya. *Eta guartu bee, kask eman zioan belaunien!* (Eta ohartu bage, kask eman zioan belaunean!)
- kike** Zotina. *Ostuko yon zerbait amai, kike asi dakik ta!* (Ostuko hion zerbait amari, kika hasi zaik eta!)
- kilixki-kalaxka** Jostailua, «dipsalus silvester» sasiaren adarrekin egindakoa. Honi eragindakoan horrelako soinua ateratzen du. *Jostailuik ez zonien kilixki-kalaxkak eitten giñuzkiyan!* (Jostailurik ez zegoenean kilixki-kalaxkak egiten genitian!)
- kirris-marras** Arrailduz, txikituz, erabat hautsiz ohartzeko. *Guu txakurrek kirris-marras jan zittuk ezurrek!* (Gure txakurrek kirris-marras jan ditik hezurrak!)
- kiski-kaska, zirrin-zarran, zirti-zarta** Gelditu gabe aritu zerbaiten, berdin jaten nola egurra txikitzen, esate baterako.
- kol-kol-kol yan, zinga-zinga** Gogo handiz eta gelditu gabe edan. Lehena gehienbat urarekin erabiltzen da eta bigarrena, aldiz, ardoarekin.
- korrosk** Hortzekin zerbait txikitzerakoan ateratzen den soinua adierazten du.
- koxk** Golpe txikiaren onomatopeya da hau, *kask* baino txikiagoa.
- kurrixke** Txerriek egiten duten soinua edo garrasia.
- mara-mara** Eurrez, ugari. Gehienbat elurrarekin erabiltzen da.
- mar-mar, marmarrien, marmarres** Murmurazioa, marmarra, marmarrean, marmarrez. Gaztelaniako «refunfuñar» adierazten du.
- marraka** Ahuntz eta ardien soinua.
- marrius-marrius** Behiak, bereziki, hausnarrean daudenean egiten duten soinua onomatopeya.
- mauka-mauka** Bi masailak erabiliz jaten denean erabiltzen da onomatopeia hau, presaka eta gogo biziz jaten ari dela adierazteko.
- pil-pil** Momentu edo unerik egokienean dagoenean zerbait.
- pilisti-palasta** Ontzi batean dagoen likidoaren mugimendua.
- pinpi-paunpa** Kolpeka, txantzarik gabe.

plisti-plasta Uretan ibili, erabat sartuta nola oinez gainean. *Etxiaño plisti-plasta etor nok ein deen auriyaki!* (Etxeraino plisti-plasta etorri nauk egin duen euriarekin!)

pol-pol Uraren bor-borra, bai naturan sortzen denean, nola egosteko orduan.

pur-pur-pur Barrearen onomatopeya da, batez ere ezin jasan dagoenean. *Guartu ezpeiz dee an yonduiek pur-pur-pur farres!* (Ohartu ez bahaiz ere han egon duk pur-pur-pur barrez!)

tar-tar Hitz jario amaitezina, kalapita. *Noiz isilduko zaa beinguen, beti tartarrien zailtze ta!* (Noiz isilduko zara behingoan, beti tar-tarrean zabilta eta!)

tiriki-tarraka Alde batetik bestera zerbait herrestan eramanez ibili. Hankak herrestan ibili, besterik gabe, ere bai.

ttirin-ttirin Lanean erdi ihesi ibili, denbora pasa alde batetik bestera. *Egun ososue ttirin-ttirin pasatzen dik, fundementuko ezee ein bee!* (Egun osoo ttirin-ttirin pasatzen dik, fundamenduko ezer ere egin bage!)

txir-txir Elurra eta batez ere euria era leunean baina gelditu gabe botatzen duenean. *Goiz guzien txir-txir aittu dek auriye eta guartziaiko erabat txelatuik geldittu nok!* (Goiz guztian txir-txir aritu duk euria eta ohar-tzerako erabat blaiturik gelditu nauk!)

txor-txor Soinu leun eta jarraieren onomatopeya. Etxarri Aranazko toponimian horrela esaten zaio uharka eta erreka bati Lizarrusti aldean.

zarrakataplan Lihoa egiteko makinaren soinua. «*Xordo e hijos, fabrica de zarrakataplan*» XX. mendeko liho lantegiari horrela esaten zioten.

zastako, zaplastako, zizteko, zartako Kolpe ezberdinen izenak, ateratzen duten soinuaren arabera. Lehen hirurak aurpegian emandakoak dira eta, laugarrena, edozein tokitan.

zizi-maza Kontsonante txistukariak behar bezala ahoskatzen ez dituenari egokitzen zaio. Gehiegi edandakoan ezin hitz eginez dabilenari ere *zizi-maza* dagoela esaten zaio.

ESAMOLDE ETA ADITZ PERIFRASIAK

Banan-banan emanen ditut esamolde eta aditz perifrasiak, lehenik modu estandarizatuan letra etzanaz eta beltzez, jarraian parentesi artean herriko hizkeran entzun daitekeen moduan eta non erabiltzen den, ondoren esanahia eta, azkenik, esamolde edo aditz perifrasiaren testuinguramendua batuko ordainarekin.

- **haga betean egon** (*aga betien yon*, Etxarri Aranatz) Estu egon, deseroso. *Egunoiten aga betien zio, ez tek ezertaako gauze!* (Egun hauetan haga betean zagok, ez duk ezertarako gauza!)
- **ahotan ibili/egon** (*agotan ibilli/yon*, Sakana) *Kuidedo geyo ez badek uraitzen denen agotan ibilkueiz!* (Kuidado gehiago ez baduk edukitzen denen ahotan ibiliko haiz!)
- **ahotik hortzera** (*agoti ortzia*, Etxarri Aranatz) Pentsatzeko betarik izan gabe, bat-batean. Normalean «bota» aditzarekin osatzen da, baina «esan» edo «erantzun» aditzak ere erabiltzen dira. *Kristonak bota zizkiyoban agoti ortzia!* (Kristorenak bota zizkioan ahotik hortzera!)
- **aho zulora begira egon** (*ago txulua beire yon*, Etxarri Aranatz) Norbaiten baitako mirespena adierazten du. *Itzeitten asten danien, mundu guzie ago txulua beire yoten zikiyok!* (Hitz egiten hasten denean, mundu guztia aho zulora begira egoten zaiok!)
- **aho txikiarekin/handiarekin esan** (*ago txikiyaki/aundiyaiki esan*, Etxarri Aranatz) Zalantza handiz edo ziurtasun osoz esan. *Nik ez nioban siñestuko, ago txikiyaki esan dik ta!* (Nik ez nioan sinetsiko, aho txikiarekin esan dik eta!)
- **aire hemendik** (Urdiain) Alde hemendik!
- **hortzak/nerbioak airean eduki** (*ortzak/nerbiyuek aidien urai*, Sakana) Hortzetako mina («dentera») izan edo nerbioetatik jota egon.
- (**ez**) **adituarena egin** (*ez aittubana ein*, Sakana) Entzun ez duenarena egin. Gaztelaniako «hacerse el despistado» adierazten du.
- **aditzera bota** (*aditzeria bota*, Urdiain) Zeharka jakitera eman. Gaztelaniako «dar a entender» adierazteko erabiltzen da.
- **aditzera eman** (*aitzera eman*, Lizarragabengoa) Neurritz kanpoko moduan ibili, nabarmenduz. Gaztelaniako «llamar la atención» adierazten du.
- **aditzeraz jakin** (*aitzias jakin*, Lakuntza) Nonbait aditu duelako jakin. «Saber de oídas».
- **Ai, hau pena nik! Ai, ama nik! Oi, ene nik!** (*Aiaupenani!, Aiamani!, Oieneni!*, Sakana) Ezustekoa adierazteko erabiltzen dira hiru esamolde hauek. *Aiaupenani! Ez ta egiye izaan!* (Ai, hau pena nik! Ez da egia izanen!)
- **zein bere alde** (Etxarri Aranatz) Bakoitza bere gisa, bere aldetik. *Azken urtioiten zein bee alde gaitzen aneyok!* (Azken urte hauetan zein bere alde gabiltzan anaiok!)
- **hankak arin!** (Etxarri Aranatz), **hanka emendik!** (Sakana) Alde hemendik!

- ***hankazpian ibili*** (*ankazpien ibili*, Urdiain) *Hankazpi* hankaren zolari esaten zaio eta perifrasiak, aldiz, mendean hartu adierazten du.
- ***aparte bage*** (*aparte bee*, Etxarri Aranatz) Gaztelaniako «sin ir más lejos» ordezkatzten du.
- ***ez ahuntzetarako, ez ardiatarako*** (Sakana) Ez baterako, ez besterako.
- ***Asko duk/n!*** (*askuek/n!*, Sakana erdialdea) Gaztelaniako «¡Vaya (por Dios)!» ordezkatzten du.
- ***atzekoz aurrera*** (*atzekos aurria*, Sakana) Aldrebes.
- ***ongi ustean*** (*aungi ustien*, Sakana erdialdea) Asmo onean, asmo onez.
- ***aurrez/haustapur bidali*** (*aurres/austepur bieldu*, Etxarri Aranatz) Alde egiteko esan. Pikutara bidali.
- ***hautsetan eduki*** (*autsetan urai*, Etxarri Aranatz) Onespen edo estimu gutxian eduki. *Gizajuorrek, autsetan zikok bee buube!* (Gizagaixo horrek, hautsetan zaukak bere burua!)
- ***atzeneko aztalkak egin*** (Sakana) Gaztelaniako «estirar la pata» adierazten du. *Gostatu zikiyoban, beye atzeneko aztalkak ein zittuban noizbeittere!* (Kostatu zitzaioan, baina atzeneko aztalkak egin zituan noizbait ere!)
- ***baldartu/barratu arteo*** (*baldarratu/barratu artio*, Sakana) Asko, izugarri, kantitate handia adieraziz erabiltzen da. *Gaur gosaltzekuen baldarratu artio jan dezubie!* (Gaur gosaltzerakoan baldartu arteo jan duzue!)
- ***batek daki!*** (*bateteki!*, Lakuntza) Auskalo!
- ***bazterrak nahastu*** (*baztarrak nastu*, Sakana) Giro txarra sortu eta jendea aztoratu. *Oriek, ori! Baztarrak nastu ta gio aldein!* (Hori duk, hori! Bazterrak nahastu eta gero alde egin!)
- ***begitan hartu*** (*begiten artu*, Sakana) Gorrotatu, gogoko ez izan. *Enkargatu jarri debieneti, makiñaatek artu dik begiten!* (Enkargatu jarri dutenetik, marina batek hartu dik begitan!)
- ***-en begietatik ikusi*** (*-en begiteti ikusi*, Sakana) Beste batek esaten duena egin, haren baitan konfiantza osoa izanik. *Gu etxien, anei zarrenaan begiteti ikusten ye guziek!* (Gure etxean, ania zaharrenaren begietatik ikusten ditek guztiek!)
- ***bost badakik/n, ...*** (*bos baakik/n, ...*, Sakana) Zer jakin behar duk/n hik! *Auriye ein ber deela? Bos baakizubie zuek!* (Euria egin behar duela? Bost badakizue zuek!)
- ***ibili ta buelta*** (Sakana) Dena dela. *Ibilli ta buelta, atzia beix Olaizolak iraa:!* (Ibili ta buelta, atzera berriz Olaizolak irabazi!)

- **burutik behera egin** (*buuti bia ein*, Sakana) Trufatu. *Azkeniako, beti buuti bia eitten ziegubiek!* (Azkenerako, beti burutik behera egiten zizgutek!)
- **ederra bota/esan/egin/sartu** (Sakana) Lehen hiru aditzekin, espero ez den mailako zerbait esan edo egin dela adierazten da. *Ederrak bota zizkieguk!* (Ederrak bota zizkiguk!). Azken aditzarekin, aldiz, ziria sartu, engainatu adierazteko erabiltzen da.
- **egoki ailegatu** (*egoki allaatu*, Etxarri Aranatz) Momentu edo modu onean gertatu. Gaztelaniako «venir de perlas» adieraziz erabiltzen da.
- **Eskerrago likek/n!** (*Eskerroo likek!*, Etxarri Aranatz) Oxala. Zerbait gertatzea edo egia izatea espero dugula adierazteko.
- **Ez izan eta bai uste!** (*ez izen da bei uste!*) Norberak bere baitan edo zertarako gaitasuna duela pentsatzea, nahiz eta horrela ez dela begibistakoa izan. Hantusteari esaten zaio.
- **joare hotsak aditu** (*fale otsak aittu*, Etxarri Aranatz) Zerbaiten berri izan, baina zehaztasunik gabe. Zurrumuruak entzun. *Zuen laune geizki ote doon! Nik bintzet fale otsak aittu zittunet!* Zuen laguna gaizki ote dagoen! Nik behintzat joare hotsak aditu ditinat!)
- **faltseriari eman** (*faltsiyai eman*, Sakana erdialdea) Alferkerian erori. *Faltsiyai emanik gailtzek!* (Faltseriari emanik gabiltzak!)
- **joan eta opa ezak/n** (*fan da opazak/n*, Etxarri Aranatz, Lakuntza) Zerbait erabakitzekeo zailtasuna adierazten du. Gaztelaniako «agárralo» ordezkatzeko du.
- **pur-pur-pur barrez egon** (*pur-pur-pur farres yon*, Sakana erdialdea) Barrez, eten ezinik egon.
- **gaina hartu** (*geñe artu*, Sakana) Menderatu, lehiaketa batean, lasterka esate baterako, norbait pasatu.
- **gezurra zutik/egiaren kolorean bota** (*gezurre zuti/egiyan kolorien bota*, Etxarri Aranatz) Oso modu nabarmenean gezurra esan. Gaztelaniako «mentir descaradamente» ordezkatzeko dute.
- **gingirrinetan egon/jarri** (*gingirriñetan yon/jarri*, Sakana erdialdea) Suak harturik egon edo jarri. *Iri aittu orduko gingirriñetan jartzen dek!* (Hiri aditu orduko gingirrinetan jartzen duk!)
- **gizenak janik egon** (*gizenak janik yon*, Etxarri Aranatz) Puzturik, hazirik egon.
- **Jo gogotik!** (*Jo gooti!*, Sakana) Eutsi lanari, jarraitu lanean. Garai batean, jendea soroko lanetan ari zela, norbait ondotik pasatzerakoan esamolde honexekin agurtzen zuen lanean ari zena.

- **gorriak ikusi** (*gorriyek ikusi*, Sakana) Oso gaizki pasatu. Gaztelaniako «pasarlas canutas o moradas» ordezkatzten ditu. *Gu ez gettuk beti ola bizi, gorriyek ikusitakuek gettuk!* (Gu ez gaituk beti horrela bizi, gorriak ikusitakoak gaituk!)
- **gozoak egon** (*gozuek yon*, Sakana) Norbait oso haserre dagoela adierazteko era ironikoa dugu hauxe. *Gozuek ziek zuen etxekuek!* (Gozoak zaudek zuen etxeokak!)
- **sua baino gorriago jarri/gelditu** (*sube beño gorriyo jarri/geldittu*, Lakuntza) Gorri-gorri jarri.
- **hil edo bizi** (*ill o bizi*, Sakana) Gaztelaniako «a vida o muerte» ordezkatzten du. *Zerbeitt eittekotan, ill o bizi ai bierra zikonau!* (Zerbait egitekotan, hil edo bizi ari beharra zaukanagu!)
- **infernuko demonio piztu** (Etxarri Aranatz) Pandoraren kutxa ireki, edonolako kalte edo arazoak sortzeko eragin. *Oik, azkeniako, infernuko demonio piztu biiñe!* (Horiek, azkenerako, infernuko demonio piztu behar dinate!)
- **Inoxentiko, kalderiko!** (Etxarri Aranatz) Inuzenteen egunean, ziria sartu zaionari esaten zaion esamoldea.
- **irrikatzen egon** (*irriketzen yon*, Sakana erdialdea) Gogo biziz egon, irrikaz egon. *Irriketzen niok festak allatzeko!* (Irrikatzen nagok festak ailegatzeko!)
- **ito ez ito** (*itto ez itto*, Sakana) Itotzeko zorian. Gaztelaniako «a punto de ahogarse» ordezkatzten du. *A, ze sustue artu deen goizien, or yonduek itto ez itto ibeyen!* (A, zer sustoa hartu duen goizean, hor ibili duk ito ez ito ibaian!)
- **hitz eta putz** (Sakana) Hitz eta pitz, lasai eta gustura hizketan aritu. *Geixkixe zaudie suban ondoen, hitz eta putz!* (Gaizkixe zaudete suaren ondean, hitz eta putz!)
- **Inon direnak!** (*iyun dienak*, Sakana) Harridura adierazteko esamoldea da, gertaera susmaezinaren aurrean. *Iyun dienak! Nok pensatu ber ziyen alakoik gerta zettekela!* (Inon direnak! Nork pentsatu behar zian halakorik geta zitekeela!)
- **Izorra hadi eta hago!** (*Izurreri ta ago!*, Sakana) Gaztelaniako «¡Jódete (y baila)!»
- **kakinaren gainean/jakile egon** (*jakiñan geñen/jakille yon*, Sakana erdialdea) Jakitun egon. *Jakille beitzion, arri galdetu giñon!* (Jakile baitzegoen, hari galdetu genion!)

- **korrituan jarri** (*korrittuben jarri*, Sakana erdialdea) Dirua errentan jarri etekina ateratzeko. *Dazkaten diru pixkek korrituben jar ber ttut!* (Dauzkadan diru pixkak korrituan jarri behar ditut!)
- **kuku gelditu** (*kuku geldittu*, Sakana) Zuhaitza botatzerakoan beste baten kontra zutik gelditu.
- **lehengo harenez/lehengoan huraz** (*leguarrenes/lenguen ures*, Etxarri Aranatz) Lehengo haren modura. Gaztelaniako «como decía el otro» ordezkatzan dute.
- **lepo-hezurreraino eduki** (*lepaezurriaño urai*, Sakana erdialdea) Nazka-nazka eginda eduki. *Lepaezurriaño nakabie!* (Lepo-hezurreraino naukate!)
- **leher egiten egon** (*lerreitten yon*, Sakana) Oso urduri egon, jasan ezinik egon. *Lerreitten niok, ez tikiyet noiz allatu bian!* (Leher egiten nagok, ez zakiat noiz ailegatu behar den!)
- **lehertuko bada ere** (*lertuko ba de*, Etxarri Aranatz) Nahiz eta lehertu! Gaztelaniako «pase lo que pase» edo «sea como fuere» ordezkatzan ditu. *Lertuko ba de argitziaño enok etxia fan ber!* (Lehertuko bada ere, argitzeraino ez nauk etxera joan behar!)
- **lehertzea eduki** (*lertzie urai*, Sakana erdialdea) Izorra dadila! Gaztelaniako «¡que se fastidie!» ordezkatzan du. *Lertzie daka, ez toot kaso geyo ein ber!* (Lehertzea dauka, ez diot kasu gehiago egin behar!)
- **gorputzez libratu** (*gorputzes libretu*, Sakana erdialdea) Kaka egin. *Egunek yamaten zittuk gorputzes ezin libretu!* (Egunak eramaten ditik gorputzez ezin libratuz!)
- **lihoak adina hartu/lihoari adina eman** (*liyuek aiñe artulliyuai aiña eman*, Sakana erdialdea) *Liyuek aiñe artu ziyabien!* (Lihoak adina hartu zitean!)
- **loak jo/logaleak hartu** (*luek jo/loganiek artu*, Etxarri Aranatz) Logura izan edo sartu. *Atzeniako, ordu biyek aldia, luek jo zieban!* (Atzenerako, ordu biak aldera, loak jo zidaan!)
- **logaleak erretzen egon** (*loganiek erretzen yon*, Lizarragabengoa) Logura handia izan. *Loganiek erretzen yondu nok goiz ososuen!* (Logaleak erretzen egon nauk goiz oso-osoan!)
- **larrutik pagatu** (*larruti paatu*, Sakana erdialdea) Zerbaitek ondorio oso kaltegarriak izan. Gaztelaniako «pagarlo muy caro» ordezkatzan du. *Ezak alakoik ein, bestela larruti paatukuek ta!* (Ez ezak halakorik egin, bestela larrutik pagatuko duk eta!)
- **lurra baino faltsuago** (*lurra beño faltsuoo*, Lizarragabengoa) Oso al-perra.

- **luzegarriak eman** (*luzegarriyek eman*, Etxarri Aranatz) Luzamenduetan ibili. Gaztelaniako «dar largas» ordezkatzzen du.
- **luze iritzi** (*luzitzi*, Etxarri Aranatz) Norbaiten edo zerbaiten zain izanik, dena delakoa berandutzen ari dela pentsatu. Gaztelaniako «estar tardado» ordezkatzzen du.
- **mihia loditu** (*miye lodittu*, Etxarri Aranatz) Hitz egiteko arazoak izan alkoholaren eraginez.
- **muinak jan** (*muñek jan*, Etxarri Aranatz) Norbait zure alde jarri engainatuz. *Alabak amiñai muñek jan zizkiyoban da dena betako!* (Alabak amonari nuinak jan zizkioan eta dena beretako!)
- **nola zaizkik-n/ol/zu/zue/e** (*nola dazkik-n/yo/zu/zubie/yobie*, Sakana erdialdea) Norbaiten edo zerbaiten izena galde egiteko esamoldea. *I, txikito, nola dazkik?* (Hi, txikitxo, nola zaizkik?)
- **nondik nora** (*nundi nua*, Sakana) Zerbait ezinezkoa iruditzen zaigula adierazteko erabiltzen da. Gaztelaniako «¡de qué!, ¡imposible!» ordezkatzzen ditu.
- **Hobe duk hutsa!** (*obiek utse!*, Sakana) Abisua edo mehatxua egiteko erabiltzen da. Gaztelaniako «más te vale» ordezkatzzen du.
- **odoletan joan** (*odoletan fan*, Sakana) Odolustu. *Basuen, bakarrik zoola, izterpien ebai bet ein da odoletan fan yauben!* Basoan, bakarrik zegoela, iztarpean ebakia egin eta odoletan joan zuan!)
- **odola ur bihurtu** (*odola uts bihurtu*, Sakana) Atzera egin, beldurtu. *Ezin izendu nioban aurre ein, odota uts bihurtu zikieban da!* (Ezin izan nioan aurre egin, odota ur bihurtu zitzaidaan eta!)
- **Oraino horrelakorik!** (*guaño olakoik*, Sakana) Ez da posible! Ezin liteke!
- **orpo-orpoetan eduki** (*opopotan urai*, Etxarri Aranatz) Gure atzetik dabilen norbait ia gainean eduki. Gaztelaniako «pisando los talones» ordezkatzzen du.
- **hotzak/goseak garbitzen egon** (*otzak/gosiek garbitzen yon*, Sakana) Erabat hoztuta edo gosetuta egon. *An geldittu dek, otzak garbitzen, dal-dal-dal!* (Han gelditu duk, hotzak garbitzen, dar-dar-dar!)
- **hotz handirik ez izan (zerbaitek)** (*otz aundik ez izen*, Etxarri Aranatz) Gauza jakina eta oso errepikatua izan. Hozteko edo ahazteko denborarik eman ez zaiona. *Eztikok, ez, otz aundiik kontuboorrek!* (Ez zaukak, ez, hotz handirik, kontu horrek!)
- **hotzak atera** (*otzak atia*, Etxarri Aranatz) Gorputza berotu ariketa edo lanaren bitartez.

- **izerdi paltsetan egon** (*izerdi paltsetan yon*, Sakana) Izerditan blai egon.
- **Osasuna enkomendatzeko!** (Sakana) Doluminak emateko esamoldea.
- **Pazkoaren amarez!** (*pazkuen amores!*, Etxarri Aranatz) Abenduaren 24an, etxez etxe errepikatzen dute esamolde hau haurrek, dirua edo janariren bat jasotzeko asmotan. Diktadura garaien eraginez, esamoldea erdaldundurik entzun zitekeen zenbaiten ahotan: «paz con amores».
- **pentsu batean egon** (*pensu betien yon*, Etxarri Aranatz) Egun osoa jaten eman. Oso jatunei egokitzen zaie esamolde hau.
- **pott eginda egon** (*pott einda yon*, Etxarri Aranatz) Ados izan, bat etorri. *Pott einda ziek aspaldiyontan!* (Pott eginda zaudek aspaldi hone-tan!)
- **puska-puska egin** (*puske-puske ein*, (Sakana) Erabat hautsi, txiki-txiki egin. *Txabola puske-puske ein ziegubiek!* (Txabola puska-puska egin zigutek!)
- **lo seko gelditu** (Sakana) Loak erabat hartu. Gaztelaniako «profundamente dormido» ordezkatzan du.
- **seko gelditu** (Sakana) Hil. *Golpe txiki bet buuben artu ta seko geldittu auben!* Golpe txiki bat buruan hartu eta seko gelditu zuan!)
- **suak harturik egonibili** (*subek artuik yon/ibilli*, Sakana) Oso haserre egon edo ibili.
- **tokietan egon** (*tokiten yon*, Sakana) Erdialdea) Oso urruti egon. *Tokiten zioek esaten deken mendiyoi!* (Tokietan zagok esaten duan mendi hori!)
- **Trebe gaituk-n!** (*trebe gettuk-n!*, Sakana) Zerbait lortu edo lortzeko zorian izanik, poza adierazteko esamoldea. *Arboloi botatzen bayau, trebe gettuk!* (Arbol hori botatzen badiagu, trebe gaituk!)
- **Txakurraren ipurdira!** (*txakurran ipurdie*, Etxarri Aranatz) Pikutara! *Bayueke txakurran ipurdie!* (Bahoake zakurraren ipurdira!)
- **txakurraren buztana baino atzerago egon** (*txakurran buztana beño atzeroo yon*, Etxarri Aranatz) Atzeraturik bizi, aurrerakuntzak iristen ez direla. *Alemaniki konpatuta, txakurran buztana beño atzeroo gaudek!* (Alemaniarekin konparatuta, txakurraren buztana baino atzerago gaudek!)
- **txantxarik gabe!** (*txantxipe!*, Sakana) Indar guztiarekin, mugarik gabe. *Ez tiobiek muturrekuat bakarrik eman, ez. Txantxipe eman ziobiek!* (Ez ziotek muturreko bat bakarrik eman, ez. Txantxarik gabe eman ziotek!)

- ***Txo, marro, txo!*** (*txomarrotxo!*, Burunda, Etxarri Aranatz) Txerriak deitzeko esamoldea.
- ***Aida!, Esti!, Uo!*** (Sakana) Uztarriko ganaduari ematen zaizkion aginduak: lehena, aurrera egiteko; bigarrena, atzera egiteko; eta, azkena, gelditzeko.
- ***urdindu arteo eman*** (*urdinndu artio eman*, Etxarri Aranatz) Jipoi handia eman.
- ***hurren-hurren hartu*** (Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa) Bata bestearen atzetik, aukeratu gabe, hartu. Gaztelaniako «tal y como viene» adierazteko erabiltzen da.
- ***zartana baino eroago/harroago egon*** (Etxarri Aranatz, Urdiain) Burutik jota egon. Gaztelaniako «estar como una cabra» ordezkatzan du.
- ***zotzera bota*** (*zotzia bota*, Etxarri Aranatz, Urdiain) Zozketatu, neurri ezberdinetako zotzak erabiliz.

MAILEGUAK

Ohikoak izaten dira mundu zabalean hizkuntzen arteko maileguak. Eta asko dira euskarak bere inguruko hizkuntzetatik hartutako hitzak edo maileguak eta horietako askok aldaketa fonetikoak ez ezik, euskararen beraren beste berezitasun zenbait jaso dituzte.

Horrela, egun, horietako asko euskal lexikokoak direla esan dezakegu, ***gorputz***, ***txitxirio***, ***auskalo***, ***mandatu***, ***merezi*** eta ***mesede*** esate baterako, «corpus», «cicero», «a buscarlo», «mandato», «merescere» eta «merced» dute bakoitzaren jatorrian.

Sakanako lexikoak ere horrelako mailegu ugari baliatu ditu, hala nola:

- ***allakuidaus!*** (allá cuidados) Hor konpon!

Ni kotxien fanen nok mendie. Ik ez peek nei, allakuidaus! (Ni kotxean joanen nauk mendira. Hik ez baduk nahi, allakuidados!)

- ***dekeittu*** (decaído) Erabat nekaturik.

Azpiontzak atiatzen ibildu nok eta dekeittuik geldittu nok. (Azpiontzak ateratzen ibili nauk eta «dekaiturik» gelditu nauk)

- ***deskuiduen*** («descuido»)an Kasualitatez, ustekaitzean. Gaztelaniako «por casualidad» adierazten du.

Deskuiduen biandutzen baakit, ez yon nai espia! (Deskuidoan berandutzen bazait, ez egon niri espera!)

- **endriatu** (enredar) Nahastu, endredatu.

Utziko aut etxien sartzen, beye ez badek bertan ezee endriatzen! (Utziko haut etxean sartzen, baina ez baduk bertan ezer ere endredatzen!)

- **entiatu** (enterar) Zerbaitez jabetu, «enteratu». Izenondo moduan, «hantuste» edo «handiuste» adierazten du.

Enikiyan alako entiatube zanik gizonoi! (Ez nekian halako enteratua zenik gizon hori!)

- **entresaka** (entresacar) Bakanketa, bereziki basoan zuhaitzekin egiten dena, hoberenak aurrerako utziaz.

Beko basuen entresaka ein bierra zio, fago zaparrak sarrigi ziek ta! (Beheko basoan entresaka egin beharra zagok, pago zaparrak sarriegi zaudek eta!)

- **entriatu** (entregar) Eskura eman, eman. «Itzuli» ere adieraz lezake.

Guaño ez doot entriatu libuube! (Oraino ez diot entregatu liburua!)

- **errep(i)atu** (reparar) Ohartu, konturatu.

Ez tiobet errepiatu noiz aillatu yeizen etxia! (Ez zioat erreparatu noiz ailegatu haizen etxera!)

- **erretietu** (retirar) Erretiratu, etxeratu.

Biandu erretietzen danak urrengo goizie galduik izaan dik! (Berandu erretiratzen denak hurrengo goiza galdurik izanen dik!)

- **eskarmentu** (escarmiento) Ikasbidea, abisua.

Eskarmentu aundiye daka zuen aittek! (Eskarmentu handia dauka zuen aítak!)

- **eskartxera** (scarsella, «bolsa de peregrino o de mendigo») Bizkar-zorroa, bizkarretik zintzilik eramatekoa.

Txerriyek basuen uraitzen giñuzkiyenien eskartxera artabikorres beteik yamaten giñuban! (Txerriak basoan edukitzen genituenean eskartzela artabikorrez beterik eramaten genian!)

- **ezkeñu** (escaño) Etxeko sarrerako, ezkaratzeko, aulkia. Bizkarrari eustekoa eta guzti izaten du.

- **gualmente** (igualmente) Berdin. Aferesia jasan du burutzapen honek etxarrieran. Hasieran kontsonante itxia daramala ere entzun daiteke zenbaitean.

Gaubon pasa! Gualmente! (Gau on pasa! Berdin!)

- **kalma** (calima, calina) Zerua bat-batean hodeiek estaltzen dutenean.
Lentxoo garbi-garbiye zioban zerube ta guai, beix, kalma ziok! (Lehentxeago garbi-garbia zegoan zerua eta orain, berriz, kalma zagok!)
- **kuanto** (cuanto) 1. Jakina, noski. *Kuanto beyetz!* (Jakina baietz!)
2. Ba- ... bezala. *Kuanto biak bakarrik dakiyen ori eitten!* (Hori egiten berak bakarrik jakinen balu bezala!)
- **lijito** (licitum) Zuzenbidearen arabera, benetakoa, onartua. Gaztelaniako «legítimo» edo «auténtico» izendoen esanahia hartzen du.
Aurtengue, meixtru lijitue dek! (Aurtengoa, maisu lijitua –benetakoa– duk!)
- **malamente** (malamente) Alferrik. Ez dauka/t/k-n/gu/zu/zue/te ezer egitekorik. Gaztelaniako «en vano» ordekatzen du.
Malamente zailtzie! Ez tezubie ezee lortu ber! (Alferrik zabiltzate! Ez duzue ezer ere lortu behar)
- **martingala** (martigale, frantsesetik) Amarrua.
Ez ttuzu guaño orren martingalak ezautzen! (Ez dituzu oraino horren martingalak ezagutzen)
- **makinetu** (Sakana) Goldatu. Golda garaiak gairatu eta bravant-a sortu zenean «makina/e» izena jarri zitzaion Sakanan gutxienik, hori bai, kontsonante sudurkaria palatalizatu gabe, jatorrizko ahoskera mantendurik (Izenordain mugagabearen kasuan aldiz, palatalizaturik ageri da aipatu kontsonantea: *makiña bat*). Eta hortik *makinetu* aditza, asimilazio aurrerakaria eta guzti, sortu. Bitxikeritzat har daiteke *golda* hitza bizirik mantentzea, baina lurra irauli adierazteko ez erabiltzea, *makinetu* baizik. Hala ere, *golda* esaera zahar moduan baino ez zaigu gelditu: *Golda billen da golda bizkerrien!* (Golda bila eta golda bizkarrean!).
- **malapartatu** (mal apartado). Madarikatu.
Aldein zak nee ondoti, txakur malapartatuborreki! (Alde egin ezak nire ondotik, txakur madarikatu horrekin!)
- **malaprenda** (mala prenda). Jarrera desegokia duen emakumea.
Ori, malaprendoi den ii laune? (Hori, malaprenda hori dun hire laguna?)
- **malenpleo** (mal empleo). Egindakoa alferrikakoa izanik, saiatu izanaren damua adierazteko erabiltzen da.
Malenpleo aurten soruen sartu ttuten ordubek! (Malenpleo aurten sorroan sartu ditudan orduak! Jakin izan banu! Ez nituzkeen sorroan hainbeste ordu sartuko!)

- **malfin ein** (mal fin). Gaizki bukatu.

Azkeniako, malfin ein zian! (Azkenerako, malfin egin zian! Gaizki bukatu zuen!)

- **malgobierno** (mal gobierno). Era desegokian, ez buru ez hanka.

Goizterroo o bianduboo, malgobierno ibiltzen dan guziei bierreztankeiren bat gertatzen zikiyok! (Goizterrago edo beranduago, malgobierno ibiltzen den guztiari beharreztenkeriaren bat gertatzen zaiok!)

- **malkirrot ein** (bancarrota) Porrot egin, negozioren batek esate baterako.

Guu tabernak urtiatzuk onak izendu zittuban, beye azkenien malkirrot ein zian. (Gure tabernak urte batzuk onak izan zituan, baina azkenean malkirrot egin zian. Porrot egin zian)

- **malo** (malo es). Seinale txarra.

Ezpebie ezee yantzun, malo! (Ez badute ezer ere erantzun, malo! Seinale txarra!)

- **malosea** (malo sea) Esan edo aurikusi dena gertatuko delakoan. «Horrela izanen ahal da!» edo «Ez ahal da horrela izanen!»

Malosea ez padiau geyo olakoik ezautu ber! (Malosea ez badugu gehiago horrelakorik ezagutu behar!)

- **manzeliñe** (manzanilla). Burutzapen metatesiduna eta hitz bukaerako bokal asimilazio aurrerakaria duena.

Egunio, guatzia fan beño len, manzeliñe artzen ñet! (Egunero, ohatzera joan baino lehen, kamamila hartzen dinat!)

- **matei** (materia). Zornea. Bokal arteko dardarkari samurraren erorketa eta bukaerako –a organikoaren galera jasan ditu burutzapen honek etxarrian.

Zauriye erabat geiztotuik zikonet, mateis beteik! (Zauria erabat gaiztoturik zaukanat, materiaz beterik!)

- **ma(a)tille/a** (tarabilla) Maratila, atea ixteko ziri edo kisketa. Metatesia eta b/m kontsonante txandaketa jasan ditu: *tarabilla* > *harañilla* > *maratilla*. Sakanan, ondoren, bokal berdinen arteko dardarkaria erori da.

Eyeiz bee gelan sartuko biak ez pau nei, maatille zikok ta! (Ez haiz bere gelan sartuko berak ez badu nahi, maratila zaukak eta!)

- **mejuatu** (mejorado) Gizendu, pisua hartu. *Txartu* da bere antonimoa. Bokal arteko dardarkari samurraren erorketa jasan du eta ondoren erdiko bokalaren disimilazioa.

Asko mejuatu dek azken illontan! (Asko mejuatu duk azken hil honetan!)

- **metete, metikon** (meter) Saltsero, besteen gauzetan sartzea gustuko duenari esaten zaio.
Ago ixillik, metete alena! (Hago isillik, saltsero alaena!)
- **mukuru** (cumulum, cúmulo, colmado) Erabat betea. Burutzapen metasiduna dugu.
Zui ondoko uberka utses mukuru zio! (Zubi ondoko uharka urez mukuru zagok!)
- **obligetu** (obligar) Behartu, obligatu.
Ez obligetu jendiei guu egiyeki bizitzia, yakusi guu gezurreki ez bizitzen! (Ez obligatu jendeari gure egiekin bizitzera, erakutsi gure gezurrekin ez bizitzen!)
- **okurritu, okurrenzi** (ocurrir) Bururatu, pentsatu. Burutazioa.
Ezta okurritu dee oiri ezere esatie! (Ezta okurritu ere hoiei ezer ere esatea!)
Eztakik ze okurrenziyek daukan orrek! (Ez dakik zer okurrentziak daukan horrek!)
- **olgatu, olgan ibilli** (holgar) Jolastu. Lakuntzatik ekialdera erabiltzen da. Jatorriz *latinetik, folicare*, datorren hitza dugu.
Aurzaruen olgatu ein ber da ta gero gerokuek! (Haurtzaroan olgatu egin behar da eta gero gerokoak!)
- **oiñele** (orinal) Txizontzia. Bokal arteko dardarkari samurra erori, palatalizazioa, asimilazio aurrerakaria, eta bokal erdiaren protesia usertatu zaizkio burutzapen honi: *orinal > oinal > oiñal > oiñel > oiñele*.
- **otxokuarto** (ocho cuartos) Harridurazko partikula, kexatzeko erabiltzen da eta «demontre»ren parekoa dugu.
Ze afai ta ze otxokuarto! (Zer afari eta zer otxokuarto –afari ondoko–!)
- **paatu** (pagar) Ordaindu. Bokal berdinen arteko herskari ahostuna erori da.
Paatu bee aldein ye! (Pagatu bage alde egin diate!)
- **pasmatu** (pasmar) Egurra zahartu eta belztu hezetasunaren ondorioz.
- **patrifiliyo** (patri + filio, latina) Azken hitzak entzun, amaiera. *Ola segitzen beek, laster aittuko ttuk patrifiliyuek!* (Horrela segitzen baduk, laster adituko dituk patrifilioak!)
- **perlesiye** (paralisia) Hitz sinkopatua dugu, /r/ eta /l/ kontsonanteen arteko bokala galdu baitu. *Perlesiyek jota zio, gerritti bia ezin muiitus!* (Paralisiak jota zagok, gerritik behera ezin mugituz!)

- **pillere** (pilar) Zutabea. Bukaerako bokalaren protesia, bokal asimilazioa eta palatalizazioa jasan ditu burutzapen honek.

Lau pillaren geñen zioke etxe guzietan! (Lau «pilar»ren gainean zagok etxe guztia!)

- **pratu** (probare) Probatu, dastatu. Bokal arteko kontsonante ezpainkaria erori eta $V_1V_2 > V_2V_2 > V_2$ bilakabidea izan du burutzapen honek: *probatu > proatu > praatu > pratu*.

Eyete nei iltzie zuen arduoi pratu bee! (Ez diat nahi hiltzea zuen ardo hori probatu bage!)

- **premi, premiyetu** (apremiar) Premia (izan), beharra.

Garbaldi beten premiyen ago! (Garbaldi baten premian hago!)

- **presente** (presente) Txerria etxean hildakoan, familiakoei zein hurbilekoei emandako txerriaren multzoa, txerriaren beraren sabeleko gantz hoztuan (*basare*) bilduta.

- **primeran** (primera) Ederki, bikain.

Guk bintzet ezitokbau kejatzeik, primeran bizi gettuk ta! (Guk behintzat ez zaukaagu kexatzerik, primeran bizi gaituk eta!)

- **puerkei** (puerco) Txerrikeria, zikinkeria.

Gaurko aurrek puerkeyek besteik ezittubien jaten! (Gaurko haurrek «porkeriak» besterik ez dituzten jaten!)

- **salto, saltokan** (saltar) Jauzi, jauzika. Aditzondoak kontsonante sudurkariaren protesia du.

Beyek saltokan utzi ttugu mendiyen! (Behiak saltoka utzi ditugu mendian!)

- **sanga(a)tu** (sangrar) Animaliak hildakoan, modu kontrolatuan odolustu.

Tripota onak eitteko aungi sangaatu ber da txerriye! (Tripaki onak egiteko ongi «sangratu» behar da txerria!)

- **sikia** (siquiera) Oxala. Gutxienez.

Bier bezela itz eiñen balebie, sikia! (Behar bezala hitz eginen balute, sikira!)

- **sobree** (sobrar) Sob(e)ra ere. Dirudienez, antza denez.

Sobree ez tie entiatu, bestela emen yonen zien! (Sobra ere ez dira enteratu, bestela hemen egonen ziren!)

- **sosiatu** (sosegar) Lasaitu, «sosegatu». Bokal arteko herskari belare ahostuna erori eta erdiko bokalaren disimilazioaren ondorio dugu burutzapen haxe etxarrieran.

Ezin sositatus ziillek atsalde guzien zuen mutilloi! (Ezin sosegatuz zabillek arratsalde guztian zuen mutil hori!)

- **suelto** (soltar) Lasai, kezkarik gabe. Aditzondo moduan erabiltzen da.

Suelto etor zettezke nei dezunien! (Suelto etor zaitezke nahi duzunean!)

- **tap(ab)oka** (tapaboca) Lepoa berotzeko edo teilaturik gabe lo egiteko erabiltzen zen tapakia edo manta.

- **taranta, tarantulero** (tarantola) Ulertzeko zaila den jarrera, erokeria. Halako jarrera duen pertsona. Corominasek (2000) «tarántula» sarrean, italieran *attarantare* «morder (la tarántula) causando trastornos nerviosos» dela dio. Ukazina dirudi Sakanako eta italierako hitzen arteko harremana. Gaztelaniako «venada» hitza adierazteko erabiltzen da.

Oik ttuk, oik, tarantak dazkakenak! (Horiek dituk, horiek, tarantak dauzkaanak!)

- **tiefer** (tira ferra) Enborrak edo zuhaitzak herrestan eramateko burdinezko zirria eta ferra.
- **tresonatu, tresondagarri** (deshonrar) Desondratu, lotsarazi. Metatesia eta hortzetako herskariaren arteko txandaketa suertatu da.

BERREZARPEN LEXIKALA

Euskara, hizkuntza zaharra izanik eta euskaldunon lanbideak mendeetan zehar aldatuz joan direnez hainbat eta hainbat hitzen jatorrizko esanahia egokitzten joan da eginkizun berrietara. Ezagunak ditugu **ardatz** bezalako hitzak, **hausnartu** eta **jorratu** esate baterako, jatorriz «animalia belarjaleen ekintza» eta «soroko lana» adierazten zutenak hurrenez hurren eta egun, «gauzak ongi pentsatu eta aztertu» eta «edozein gai landu» esateko erabiltzen ditugunak. Eta horiekin batera badira beste zenbait hitz Sakanako lexikoan baliagarri suerta daitezkeenak sortzen diren kontzeptu berriak azaltzeko.

- **iragotu** (*irautu* Etxarri Aranatzek) *partizip.* Egurra egoera txarrean dagoenean, sutarako ere balio ez duela. Kanpoan, meteorologiaren eraginaren mende, denbora asko pasatu ondoren sutarako egurra erabat belzturik geratzen da eta ez du surik ere egiteko balio. Horrela jaso dio Andres Garmendia etxarriarrak bere ama Isidora Izari: «*Iguel dek egu-*

rroi ezpadook subai botatzen, irautuik zio! ta! (Igal duk egur hori suari ez badiok botatzen, iragoturik zagok eta!).

Hitz bera ia, jaso zuen Juan San Martinek (Zuazo, 2005, 214) Eibarren, *iraotu* «revenir», burdin langintzari lotua.

Orotariko Euskal Hiztegian (OEH) bestalde, *iragotu* sarrera dator eta ondorengo jarraian: «<Revenir el acero después del temple, hasta irisarlarlo> ... Etxba *Eib.*»

Oso egokia izan daiteke hitz hau, *iragotu*, egun eraberriturik agertu den «obsoleto» hitza adierazteko. *Zaharkitu* hitzak ez du zehatz-mehatz kontzeptu hau adierazten, zahartzea eta egungo beharretarako ezegoki gelditu edo suertatzea ez dira eta, gauza bera beti izaten.

Etxarri Aranazko burutzapenak primeran adierazten du *iragotu* dela jatorrizko burutzapena: *iragotu* > *iraotu* (bokal arteko herskariaren erorketa) > *irautu* (diptongazioa).

- **ikertza(tu)** *iz.(ad.)* (Etxarri Aranatz) Ganaduak soroan egindako kalteak, normalean uzta jan duelako. Aditzak egindako kalteak aztertzearen ekintza adierazten du. Gaztelaniako «tasar los daños» ordezkatzen du. Egun, ezbeharren bat suertatu ondoren sortutako kalte ordainak asegu-ruari eskatzeko erabil daiteke.
- **pertzeko** (Etxarri Aranatz) Pertzan prestatuturiko janaria animaliendako, inolako janari ongailurik gabea, beheko suko larretetik zintzilik egosita baino ez. Pertsonendako gaizki prestatutakoari ere horrela esaten zaio. «Zabor janaria» adierazteko balio lezake.
- **igurain** (*igurei/ingurei*, Sakana) Herriko basoak eta soroak zaintzen dituen pertsona. Bere jatorrian «iguriki» edo «inguru + zain» egon daitezke, Unanun kontsonante herskariaren aurretik sudurkaria daramala entzuten baita dudarik gabe. Inguru bateko «guarda de seguridad» itzultzeko erabil daiteke.
- **etro** (Sakana erdialdea, Larraun) Gehiegikeria adierazteko erabiltzen da. Sakana erdialdean, gehienbat jan-edanari lotua erabiltzen da. Larraunen aldiz, OEHn ageri den moduan, euriarekin: *Etro ari du* «llueve torrencialmente» dator. Burutzapen egokia izan daiteke beste motatako gehiegikeriak ere, sexu mailakoak esate baterako, adierazteko. Horrelaxe, gaztelaniako «promiscuo/a» izenondoa adierazteko *etro* erabil liteke.
- **okelak ezin jasoz egon** (Etxarri Aranatz) Horrela adierazten da norbait oso gizen dagoela. Hainbatean telebistan ikusiak ditugun ohean etzanik, mugi ezinik ia, haragia ohe osoan zabaldurik bizi direnen egoera adierazteko balio dezake, hau da, «Obesitate morbido» kontzeptua itzultzeko.

- **porka** (Sakana) *iz.* Gai baten multzoa adierazten du. Gaztelaniako «horca», «sarta», «ristra» eta «racimo» hitzak ordezkatzeko ditu: *artaporka*, *matsporka* (mahatsporka), *batxuioporka* (baratxuriporka), ...Etxarri Aranatzen *izporka* ere erabiltzen da, izen eta izenondo moduan, «hitz andana» eta «hitzontzi» adieraziz kategoria bakoitzean.

OEHN modu ezberdinetan dago jasoa, baina esanahi berarekin: *morka*, *borka* (AN-ultz, Sal, R; Lh), *porka* (G-nav, AN, B).

Eta badirudi hedapen zabalagoa izan duela burutzapen honek, beti ere toponimiari erreparatzen badiogu. Ezaguna dugu guztiok, azken hamarkada hauetako arkeologia indusketak medio, Burgosko *Atapuerca* toponimoa. Toponimo honen etimologiari buruzko iritzia duela urtebete, gutxi gorabehera, eman zuen Xabier Kintana euskaltzainak (Diario de Navarra, 2007-07-30). Jose Mari Satrustegiri entzun omen zion lehen aldiz hitz horrek euskal etimologia ukan zezakeela. Bere ustean hitz horretan «biki edo geminatu semantiko deitu ohi denaren kasu bat genuke, hau da, esangura bereko bi hitz, euskaraz bata, gaztelaniaz bestea, elkarrekin lotuak. Hortaz, jatorriz **Atapuerta* genuke, hots *ate-puerta*, hitz bakarrean era bereko bi fonema gerta ez zitezen, hasierakoak eraginda, bigarren /t/-a disimilatu eta /k/ bihurtuz. Horretara, **aTa-puerTa*-tik *Atapuerca*-ra iragan bide zen, ondoren, eskualde hartan euskara galtzean, gaztelaniazko *puercola* hitz arruntarekin herri-etimologia faltsua sortu arte».

Nik ere Jose Mari Satrustegik intuizio handia erabili zuela pentsatzen dut, baina seguru asko toponimoaren osagaiak ezagunak egiten zitzaizkiolako. Lehena, *ate*, oso hedatua dago Euskal Herri osoan eta, bigarrena izan daitekeena, *porka* hitza, oso erabilia izan da duela gutxi arte Sakana osoan, gorago esaten nuen esanahiarekin. Hala ere, toponimo honen osagaiak hauek izatekotan, kasu honetan ere gaztelaniak izan du eragin zuzena bere bilakabidean, jatorria latinekoa duten beste kasu batzuetan gertatu den moduan bokal erdiaren diptongazioa burutuz, hau da, *o* > *ue* bihurtu du. Hala suertatu da, esate baterako, *portam* > *puerta*, *solum* > *suelo*, ...hitzen kasuan. Beraz, *ate* eta *porka* izanen balira toponimoaren osagaiak, *ate*, sarrera edo kobazulo multzoa adieraziko luke. Ez al du zentzurik?

Dena dela, eta berrezarpen lexikalera itzuliz atzera berriz, hitz hau egokia izan daiteke jatorri bereko gai multzoak adierazteko, hala nola, *izarporka* edo *izarmorka* «konstelazioa» edo *argiporka* edo *argimorka* «bonbilla askoko lanpara» adierazteko.

- **potokeria** (*potokei* Etxarri Aranatzen) Litxarrerria. Potoan saltzen zena, horrelakoak ezagutzen hasi zirenean, XX. mendeko bigarren erdiaren hasieran, eguneroko jakia ez zena adierazteko erabiltzen zen. Egun «litxarrerria» edo gure haurren artean hain zabalduta dugun «txutxe» hitza ordezkatzeko.

- **eseki** (Sakana) Gari izpiek multzokaturik «espal»a osatzen dute eta multzo horietako bakoitza lotzeko erabiltzen da *esekia*, zikirioz egina. Ondarrak eta Eizagirrek ere jaso zuten Bakaikun eta Altsasun. Egokia izan daiteke «cinta de embalar» kontzeptua adierazteko.
- **hesol** (Sakana) Oholez egindako itxia edo paretta da eta *hesi* eta *ohol* dira bere osagaiak. Sakanaz gain nahiko hedatua dago hitz hau Euskal Herrian zehar OEHren arabera: G-to, B, BN-ciz. Hizkuntza guztiek burutzapen ezberdinak dituzte antzeko esanahiarekin, gaztelaniak esate baterako, «pared», «muro» eta «tabique» bereizten ditu. Eta hauxe, *hesol*, egokia izan daiteke gaztelaniako azken adiera ordezkatzeko.
- **gazur** (Sakana) Gaztari kentzen zaion ura. «Suero de la leche» itzulirik ageri da jaso dutenen artean. Egun medikuntzak hain erabilia den terminoa adierazteko, «suero», erabil daiteke.
- **garbierotu** (*garbieratu* Etxarri Aranatzen) Burua nahasi galderak eginenez, esate baterako. Osagaiak begi bistakoak dira. Gaztelaniako «apabullar» eta «enredar» aditzen parekoa litzateke.
- **txirrimiskeria** (Sakana erdialdea) Garrantzirik gabeko eginbeharra adierazten du. Gaztelaniako «acción o cuestión superficial» itzultzeko balio lezake, «peccata minuta» kultismoaren parekoa.
- **lepatxikiko, lepagaineko** (Sakana) Lepo atzealdean emandako kolpe txikia da. Gazteek maiz erabiltzen duten gaztelaniako «colleja» itzultzeko erabil daiteke.
- **ametsetako odolkia** (Lizarraga) Gogoko pertsona, batez ere, edo gauza. Egun «idolo» itzultzeko egokia izan daiteke.
- **portalanga** (Sakana) Bide bateko pasa oztopatzekoa, altuera ezberdinetako hiruzpalau langaz osatua. Langak makil luzeak dira, bidea alde batetik bestera ixteko modukoak. Peajea adierazteko baliagarri suerta daiteke.
- **irindura** (Etxarri Aranatz) Esne kolpea, jaisterakoan edo kumeak hartzerakoan, bat-batean datorrenean. «Orgasmo» hitza itzultzeko erabil daiteke.
- **mendeko egur** (Lizarragabengoa) Jatorriz, egurra gurdira botatzerakoan, lehenik zama handikoak jartzen ziren eta mendekoak, hots, erabiltzeko errazak, gainean. Pertsonen egokiturik ere erabili izan da gaztelaniako «facilmente manejable» zentzuarekin.

BITXIKERIAK

Sakana erdialdeko euskara aztertu nuenean (2001), jarraian agertzen diren bitxikeria hauetako zenbait jaso nituen eta ondorengo azalpena eman nuen:

«Bitxikeria deitu diogu zenbait lexemak erakusten duen erabilerari. Normalean, lexema batzuk erabiltzen dira azterketa esparruan, beste esparru geografiko edo hizkerek bereiziz, baina konposaketa, eratorpena, toponimia edota espresio berezi moduan, era normalean erabiltzen ez diren lexemak agertzen zaizkigu batzuetan».

Orduan hamabi baino ez nituen jaso eta oraingoan beste batzuk gehiago. Hasierako burutzapena da normalean erabiltzen dena eta bigarrena litzateke bitxikeritako har genezakeena, lehenaren esanahiarekin inoiz erabiltzen ez delako:

lazka erabiltzen da izen arrunt gisa, baina **inguindduik** (higuindurik) partizipio moduan. *Alde ein zak nee ondoti, iguindduik nakak ta!* (Alde egin ezak nire ondotik, higuindurik naukak eta!)

utse/udse erabiltzen da beti «ura» adierazteko, baina «ur» ageri zaigu beti toponimian: **urbijotzendenzui** (*Urbijotzenduenzubi*, Etxarri Aranazko toponimoa), **ubondo** (*Urondo*, Etxarri Aranazko toponimoa).

osto dugu ohiko burutzapena, baina **orri** (letxugarenak) eta **iruorribelar** (higura) ere ageri zaizkigu.

opo (orpo) da hankaren atzealdea, baina **orbo** zuhaitzen irtendura.

anka (hanka) erabiltzen da normalean, baina **oiñetako** (Urdiainen *ankatako*), **bernazaki** eta **zango** ere bai. *Nun da nee gogue, an da nee zangue!* (Non da nire gogoa, han da nire zangoa! Etxarri Aranazko esaera zaharra)

aragi (haragi) Sakana erdialde osoan erabiltzen da, baina **okela** ondorengo kasu honetan: *Okelak ezin jasos zio!* (Okelak ezin jasoz zagok! Etxarri Aranazko esamoldea, norbait oso gizen, «obesitate morbido»-arekin, dagoela esateko erabiltzen da)

iñeresagu, baina **saguzar** *Bat, bi, iru, lau, saguzarrak jan al au, ...* (Bat, bi, hiru, lau, saguzarrak janen ahal hau, ... Etxarri Aranazko jostagarria)

aitsu (aditu) baina **entzun** (meza entzun, ez aditu) *Meza entzun dek gaur?* (Meza entzun duk gaur?)

zakar, baina **itxusi ein** (itsusi egin) Izenondo moduan beti lehena erabiltzen da, baina aditz perifrasiari ez da **zakar** erabiltzen, **itxusi** baizik eta gaztelaniako «quedar feo» ordezkatzeko du. *Ezak beixee ori ein, itxusi eitten dik ta!* (Ez ezak berriz ere hori egin, itsusi egiten dik eta!)

pluma (luma), baina **lumei** (Etxarri Aranatz) Lumeri. Hegaztien luma aldaketari esaten zaio horrela eta bereziki oiloekin erabiltzen da.

planta (landare), baina **birlandatu** (Etxarri Aranatz) Landare edo zuhaitz bat atera eta berriz beste toki batean landatu.

- erde** (lerde), baina **lirdiketu** (Etxarri Aranatz) Lerdea jario. Izena erabiltzerakoan ez darama hasierako kontsonante albokaria, aditz moduan berri bai.
- asnei** (azkura), baina **izgure** (Sakana erdialdea) Burundan *azkura* erabiltzen dute, ez ordea Etxarri Aranatzik ekialdera. Berriz, *-gura* atzizkia hemen aipatu kasuan baino ez da erabiltzen, «hitzontzi, berritsu» zentzuarekin.
- bietz** (behatz), baina **eriko** (Etxarri Aranatz) «Behatz» dugu ohikoa, baina behatzetan izandako zauriak babesteko zorroari *eriko* esaten zaio Etxarri Aranatzen eta Lizarragabengoan eta normalean oihalezkoa edo larruzkoa izaten zen.
- pixe** (txiza), baina **gernubelar**, **genujariyo** eta **gernumin** (Etxarri Aranatz) «Txiza» esateko kontsonante herskari ezpainetako ahoskabea erabiltzen da Sakana osoan txistukari afrikatuaren ordeaz, baina hitz horrekin erlazionaturiko bestelako hiruetan *genu* lexema erabiltzen da hitz konposatuen lehen osagai moduan. Lehena, *gernubelar*, prostatak mina aisetzeko sendabelarra da; bigarrena, *genujariyo*, gaztelaniako «incontinencia» adierazteko erabiltzen da; eta, hirugarrena, *gernumin*, prostatak gaixotasuna.
- leño** (laino) baina **odoye-a** (Sakana erdialdea), **odeiya** (Unanu, Urdiain) Bigarrena ekaitza adierazteko erabiltzen da Sakanan, ekaitza edo, modu zehatzagoan esateko, ekaitzaren aurrikuspina izanen genuke, laino beltzak zeruan ikusterakoan, hain zuzen ere.
- Jangoikuen gerrikue / gerriko banda / paxa / baranda** (ortzadar), baina **ostrilleka** ere bai Etxarri Aranatzen. Bestalde, lehen burutzapena Burundan eta Etxarri Aranatzen erabiltzen da; bigarrena, Uharte Arakilen; hirugarrena, Irañetan; eta laugarrena, Lizarragan.

ISOGLOSA LEXIKOAK SAKANAN

Isoglosa lexikorik nabarmenenak Sakanan, Burunda eta gainerako herrietako hizkeren artean suertatzen dira eta horiek taula batean jasoak ditut lehengo ere (Erdozia, 2007, 38). Hala ere, badira aipatu muga gainditzen duten beste zenbait burutzapen eta horiek taulatik kanpo jasoko ditut. Aipagarriak, era berean, Burundako ekialdeko azken herriko emaitzak, Bakaikukoak. Burundako hizkera izanik bertakoa, hauxe da gehien hurbiltzen dena Sakana erdialdeko burutzapenetara, *continuum geolektalaren* teoria jarraituz.

BURUNDA	SAKANA ERDIALDEA ETA ARAKIL
<i>aulubi, ailubi</i> (Urdiain), <i>albitxogorriya</i> (Olazti)	<i>marrubi, malubi</i> (Irañeta)
<i>aitajaun</i>	<i>aïttun</i>
<i>amandre</i>	<i>amin</i>
<i>azkura</i>	<i>asnei, asenei</i>
<i>barru</i>	<i>barne</i>
<i>bedar, belar</i> (Bakaiku)	<i>belar</i>
<i>biki</i> (Bakaikun ere <i>biboru</i>)	<i>biboro</i> (Arbizun <i>bixki</i>)
<i>bultzurrun</i>	<i>gultzurrin, giltzurrin</i> (Arbizu, Arruazu, Uharte, Irañeta)
<i>domeka</i>	<i>iyende</i>
<i>er(o)an</i> (Olazti), <i>yan</i> ¹ (Altsasu, Bakaiku)	<i>yaman, aaman, eaman</i>
<i>errapatu</i> (Bakaiku), <i>erreparau</i> (Altsasu)	<i>guartu</i>
<i>esenatu</i>	<i>esnatu, itzerri</i> (Unanu, Lakuntza, Uharte, Irañeta), <i>yatzarri</i> (Urritzola)
<i>eutsi</i> (Iturmendi), <i>autsi</i> (Urdiain, Altsasu). Baina Bakaikun (<i>y</i>) <i>auski</i>	<i>auskin, autxin</i> (Arruazu), <i>eldu</i> (Irañeta).
<i>eztai</i>	<i>ezkontza</i>
<i>galtzarpe</i>	<i>besape</i>
<i>gaztai</i>	<i>gazta</i>
<i>guti</i>	<i>gutxi</i>
<i>ira</i> baina Bakaikun <i>iyostor</i>	<i>ixtor</i> (iraztor)
<i>izara</i>	<i>menddere</i>
<i>izeko</i>	<i>izeba</i>
<i>jostai</i>	<i>ostots, ortots</i> (Uharte, Irañeta)
<i>kare</i>	<i>galtzin</i>
<i>kendu</i> (Irañetan ere bai), <i>gendu</i> (Bakaiku)	<i>gendu, jendu</i> (Etxarri, Uharte)
<i>kipula, tipula</i> (Bakaiku)	<i>tipula</i>
<i>korrikan</i>	<i>lasterkan</i>
<i>ku(ru)iza, gurutza</i> (Bakaiku)	<i>guutze</i>
<i>masurta, matxurreta</i> (Urdiain)	<i>masusta, martutsa</i>

¹Hauxe izanen litzateke bere bilakabidea: *eroan* > (V₁V₂ > V₂V₂) *eraan* > (V₂V₂ > V₂) *eran* > (bokal arteko dardarkaria erori) *ean* > (hasierako e- bokalaren itxiera) *ian* > (bokal itxiaren kontsonantizazioa) *yan*.

BURUNDA	SAKANA ERDIALDEA ETA ARAKIL
<i>musti</i>	<i>busti</i>
<i>mutiki</i>	<i>mutiko</i>
<i>mutxikan ibili</i>	<i>jolastu, olgatu</i> (Lakuntza, Arruazu, Uharte)
<i>nesaki</i>	<i>neskato</i>
<i>oi</i> (ohe)	<i>guatze</i> (ohatze)
<i>okela</i>	<i>aragi</i> ²
<i>ondo, txarto</i> ³ , <i>obeto</i>	<i>aungi, ongi, txarki, obeki</i>
<i>orri</i>	<i>osto</i> (<i>orri</i> ere bai Etxarri Aranatzen, baina letxugari egokitua baino ez)
<i>pago</i> (Arruazun ere bai), <i>fago</i> (Bakaiku)	<i>fago</i>
<i>pits</i>	<i>apar</i>
<i>txal</i> (txahal)	<i>atxe</i> (aratxe)
<i>txindurri</i>	<i>txingurri, txiñurri</i> (Hiriberri)
<i>txixa</i>	<i>pixe</i>
<i>ub(er)axa, igualaiza</i> (Bakaiku)	<i>zapoziyel, zapittel</i> (Arbizu, Unanu)

larru, lazka, laurri (Etxarri Aranatzetik ekialdera eta Bakaikun ere bai), baina **narru, nazka, naurri** (Burundan). Sakana osoan bestalde *laseillasai* erabiltzen da. Eta Arakilgo Irañetan eta Hiriberrin *nazka* eta *neurri* erabiltzen ziren.

aztiyen (arestian) Arbizun, Lizarragabengoan eta Lakuntzan, baina **lentxoo** (lehentxeago) Etxarri Aranatzen.

esne Etxarri Aranatzen, Arbizun, Dorraon, Unanun eta Uhartean, baina **esene** Burundan, Lizarragan, Lakuntzan, Arruazun, Irañetan eta Urritzolan.

eskuere (eskuare) Ameskuan, Burundan eta Sakana erdialdean Uharte Arakileraino, baina **zarre** Irañetan eta Hiriberrin Arakilen.

iñeresagu, gauñere (Arruazu), **gaubeko iñere** (Unanu), **gauxirrin** (Irañeta), **xaguzar** (Uharte). Eta Burundan **gauinara**.

itzoo (*itzego*) erabiltzen da Sakana erdialde ia osoan, baina Irañetan eta Burundan **iyó** (igo).

²Gogoratu bitxikerietan esandakoa: Etxarri Aranatzen izen arrunt moduan *aragi* erabiltzen da, baina esamolde berezi batean «*okelak ezin jasos*» entzun daiteke.

³Urdainen, hala ere, *txarki* eta *obeki*.

forratu erabiltzen da Sakana erdialde gehiengan eta Bakaikun, baina *jorratu* Burundan, Arbizun eta Irañetan.

uts, *uds* (ur) erabiltzen da Etxarri Aranatzan, Ergoienan, Arbizun eta Lakuntzan, baina Burundan eta Arruazutik ekialdera *ur*.

BESTE EUSKALKIEKIKO HURBILPENAK

Aurreko atalean ikusi dugu muga lexiko nahiko nabarmena dagoela Etxarri Aranatz eta Bakaikuren artean, hau da, Burunda eta Sakana erdialde-Arakilen artean, Sakana osoaren erdialdean gutxi gorabehera. Eta gainera, Burundako burutzapenek Mendebaldeko euskalki multzoko oihartzuna ekartzten digute (*barru*, *domeka*, *eztai*, *izera*, *eroan*, *bedar*, *izeko*, *okela*, *musti*, *ira*, *ondo*, *txindurri*, *kipula*, *orri*, *pits*, *oi*, *narru*, ...).

Bada, Sakana erdialdean eta Arakilen badira Erdialdeko euskalki multzora eta Ekialdekora begiratzen duten burutzapen lexikoak ere. Eta hau guztia hogeita hamabost kilometroko eremuan solik.

Erdialdeko hizkera multzora lerratzen dira ondorengo burutzapenak: *ezkil*, *arkakoso*, *otsein* (hots egin), *triku*, *aitsu* (aditu), *atia* (atera), *ainddu* (agindu), *asko*, *aurre*, *atze*, *baso*, *eskuere*, *ezer*, *goguatu* (gogoratu), *koipe*, *ostu*, *ilbeltz* (urtaril), *soro*, *marrubi*, ...

Nafarrerako, Iparraldeko edo ekialdeko hizkeretara begiratzen dute, berriaz, beste hauek: *biatz* (beratz), *garagarzaro* (ekain), *garil* (uztail), *urri* (irail), *lasteil* (urri), *ja* (ezer), *sor* (gor), *atai* (ate), *guatze* (ohe), *paatu* (paratu, jarri), *ubelde* (ibaia), *dermiyo* (eremu), *jangoikuen gerriko*, *nekazai*, *ostots/ ortots*, *botaleroi*, *kisu*, *arraso* (arras), *festa* (jai), *zetako* (zerengatik), *atorra*, *zurgin*, *farralirri*, *barne*, *arotz* (errementari), *bierrik/eskerrak*, *istoi* (istorio), *karrikel/kale*, *ikertzatu* (ikertu), *buuzei* (buruzagi), *axui* (axuri), *miye* (mihia), *galtzin*, *aatxe* (aratxe), ...

Bestalde, *Sakana erdialdeko euskara* liburuan (2001), Iñaki Caminok (1977) jasotako aezkerako, zaraitzuerako, goi-nafarrerako eta behe-nafarrerako lexikotik, Sakanako lexikoarekin bat datozen hirurogeita hamar baino burutzapen komun gehiago jaso nituen: *gendu* (Zaraitzu), *afari/afaldu*, *kafi* (habia), *armimau* (GN), *berendu*, *aurpegi*, *kopeta*, *akatu*, *ellegatu*, *goatze*, *guzi*, *aretze*, *armindderi* (*ergueniri* Etxarri Aranatzan), *kisu*, *chut/thu* (*txu* Sakanan), *ostots* (ostots), *oinaztura*, *soro*, *amiña*, *muña*, *bekain*, *kokots* (*okotz* Sakanan), *ukondo* (*ukolondo* Sakanan), *titimutur*, *zilko* (*zil* Sakanan), *pixauntzi*, *atzazkar* (*azkazkal* Etxarri Aranatzan), *uspel* (*auspel* Sakanan), *urdai*, *bigantxa*, *arrano*, *txorizale*, *pinpintxori*, *garaitxori*, *musker*, *lar*, *urritz*, *erro*, *iñare*, *ote*, *sasi*, *kalpitzar*, *txingla* (*txindille* Etxarri Aranatzan), *mizpira*, *Jangoiko*, *garagartzaro*, *garil*, *abuztu*, *urri*, *lastalla*, *azaro*, *larunbat*, *lañu*, *erreka*, *ugazanaya*, *beatz*, *txongo-*

lo, calentura, argizari, mono, kalfor, bele, amurrai, ipurtargi, txipo, ezki, xunka, gazta, atari, zartaiñ, oranta, ezkil, kuraxe, estrabilia, bilatu.

Eta bukatzeko, Orotariko Euskal Hiztegian Iparraldekoekin edo ekialdekoekin kideasuna ageri duten Sakanako zenbait burutzapen lexiko aipatuko ditut: *adaro* (L, BN), *aixkolto* (R-uzt, S, BN), *amiña* (G-nav, AN, Ae, Sal, R), *arbaldi* (Sal), *arotz* (G-nav, AN-larr-ulz-erro, B, Sal, R, S), *arrauts* (AN-gip-egüés-ilzarb-olza, B), *arreil* (G-nav, B, AN-ulz, BN, Sal, R, S), *arri-erauntsi* (AN-ulz, Sal, R, S), *artio* (AN, L, BN, Sal, S, R), *atalaga* (G, AN-larr-erro, L-sar-ain, BN), *atija* (AN-araq-olza-egüés-larr-ulz, Ae), *ats artu* (AN-ilzarb-olza-egüés-ulz, L, BN, Sal, R, S), *atsaunditu* (AN-egüés, Sal, R), *aulei* (L, BN, S), *aztal* (AN-gip, L, B), *aztalka* (BN-baig), *azundu* (G-nav, L, B, BN, S), *bafada* (L-ain, BN-baig, Sal, R), *bano* (L, BN, S), *barra-barra* (BN-baig), *bartan* (G-nav, AN-5vill, B), *begigorri* (AN, L, Sal, S, R), *begimakur* (G-nav, Sal, R), *beizei* (BN-arb), *bideberri* (G-nav, AN, L-côte, BN-ciz, S), *bilixkorriko* (biluzgorri, L), *birike* (hesteki, G-nav, BN-baig, Sal, R), *bulketu* (G-nav, AN-5vill, B, L, Sal, S, R), *burnikaka* (burdin-kaka, BN-bard), *dal-dal* (BN, S, R), *e(g)iñahal* (L, BN, Sal, R), *eldu* (G-nav, AN, B, L, Ae, BN, S), *eltzeko* (B, L, BN, S), *ereinzale* (R-uzt), *erlastu* (L, B, BN, S, R), *erro Saar* (BN-baig), *fal-fal* (B, L, BN-baig), *ferra* (AN, L, BN, S), *fiñementu* (finamendu, BN-arb), *fits* (B, L-côte, BN), *floka* (BN-baig, S), *garagarzaro* (AN-ulz-arce, BN-baig, Ae, Sal, R), *galar* (AN-erro, BN), *galdein* (B, BN-arb, Ae, AN-ulz-erro), *galtierro* (galtiar, L), *galtzarrotx* (BN-baig), *gazmor* (R-uzt), *geñu* (L, BN, AN-erro), *gesal* (AN-larr-erro, B, L-ain, BN, R), *gider* (AN, L, BN, Ae, S), *gios* (geroz, AN-5vill, L), *gizekunde* (B, R), *gostatu* (AN-5vill, BN-arb), *guartu* (AN-ulz, Sal, R), *guatze* (AN-ulz, B, Ae), *ibintze* (G-nav, AN-araq-ulz-burg, Ae), *iderrosi* (Sal), *ilintxe* (B), *ilzale* (B, Sal, R), *illor* (G-nav, B, BN), *inbuluzke* (Ae), *indui* (induria, Sal, R), *iraumpentsu* (B), *irinzu* (AN-erro, BN-lab, S), *isets* (AN-ulz, B), *istiketu* (BN-baig), *ixu(r)i* (AN-mer, L-sar-arcang, BN, Sal, S), *iyeketu* (igerikatu, AN-erro, BN, S), *ja* (AN-ulz-burg, B, R-vid), *jakinsu* (BN, S), *jendu* (AN-burg, Ae, Sal), *kafi* (L, AN, BN-baig, Ae), *kak(a) untzi* (L, BN, B, R), *kakestatu* (S, R-uzt), *kalfar* (BN-lab), *kalfarro* (AN-ulz-egüés-ilzarb-olza, Ae, Sal, R), *kalkatu* (B, Sal, S, R), *kankallu* (kankail, L, B, BN, S), *kapazo* (G-nav, AN-5vill, B, R-uzt), *karrakarroska* (AN-5vill, B), *karrika* (AN, L, B, BN, S, R), *kaskallu* (AN-ilzarb-olza, B, Sal), *kasko* (G-nav, L-ain, BN-baig-mix, R), *kattalingorri* (AN-ulz, B, BN-ciz-mix-arb-baig, Ae, Sal), *keru* (AN-larr, BN, S), *kinkur* (BN-baig, AN-arb), *kireil* (B, AN-ulz), *kisu* (AN-5vill-ulz-egüés-ilzarb-olza, L, B, BN-baig, Ae, Sal), *kisk(a)ildu* (BN-baig), *komekatu* (AN-5vill, L, B), *kostaye kosta* (kostarik kosta, BN-lab), *kuluxka* (B, BN-baig), *lantxurde* (AN-ulz, L-ain, BN-arb-baig, Sal, S, R), *lepazein* (L), *lepazein* (AN-ulz-egüés-olza, L, B, BN, S, R), *lirdiketu* (R), *lixu* (AN-araq-larr-ulz-erro-burg, B, Ae, Sal), *loganetu* (logaletu, AN-gip, B, BN-arb, S), *malkar* (AN-araq, Sal, R), *mandabelar* (L, BN), *mandar* (G-nav, AN-larr-ulz, B, Ae, R-is-uzt), *milixko* (miliska, BN-ciz), *motxale* (B, Ae, Sal), *mukizu* (AN, BN, S), *mututu* (R, S), *muxer* (AN-ilzarb-ulz-egüés, Sal), *muxur-*

ketu (AN, L, BN, S), *nabarben* (B, S, R), *no* (AN-ulz, L, BN, S, R-uzt), *noizezkios* (noizezgeoz, BN-ad), *nuanei* (nuanahi, BN-bard, S), *ñiki-ñaka* (L, B, BN, S), *odol belarra* (L, BN-ciz, Sal, S, R-vid), *odol(d)ui* (S), *ogimami* (L, S), *okaka(n)* (L-ain, B, Sal, R), *olabai* (Sal), *oldiyo* (oroldio, AN-5vill, B, BN), *olexe(n)* (holaxe, AN, L, BN, S), *oliyodure* (B, L), *oliyozopa* (AN, L, BN, S), *ongarritei* (B, BN-baig, Ae), *orbiatu* (orberatu, AN-larr, S), *orikera* (horikara, L, B, BN), *osatu* «irendu» (G-nav, AN, L, BN, S, R), *otsobaba* (G-nav, AN-5vill-larr, S, Sal, R), *pelatu* (AN, L, B, BN, S), *pinpintxori* (AN-egüés-ilzarbolza, Sal, R), *pinpi-pa(u)npa* (AN, L), *pintterdi* (AN, BN), *piru* (AN-burg, B, BN-ciz-baig), *pitxera* (BN, R), *pixekurre/pixagorri* (pixagorri, L-ain, BN, S, R), *popin* (AN, Sal, R), *primal* (S, Sal, R), *pur-pur-pur* (B, BN-baig), *satar* (L, B, BN-ciz, Sal), *segitu* (AN-gip-5vill-egüés-ilzarbolza, L, BN, S), *seil* (sail, AN-gip-5vill, BN-haix-baig, L, B, Ae, S), *solo* (R-is-uzt), *soor* (G-nav, AN-egüés-ilzarbolza, L, B, BN-baig, Sal, R), *sorre(r)i* (AN, B, BN-baig, Sal, R), *tipul* (AN-ulz, BN-arb-baig-lab), ...

SAKANAKO BURUTZAPEN POLIFONIKOAK

Lehentxeago ikusi dugu lexikoari dagokion isoglosa-«porka»(multzo) nabarmena dagoela Burunda eta Sakanako gainerako herrietako hizkeren artean eta baita Sakanan zehar Euskal Herriko ia txoko guztietako burutzapenak entzun daitezkeela ere.

Eta, orain, herritik herrira ia, Sakanan bertan, zenbait kontzeptuk erakusten duen «polifonia» edo burutzapen ezberdintasuna islatzen ahaleginduko naiz. Burutzapen «polifono» horietako zenbait, lehen zortziak, lehenago «Sakanerak» artikuluan (F.L.V. 98, 2005) azaldu nituen eta orain beste hainbesteren berri emanen dut:

armiarma	eduki	narra	igel
<i>amimoro</i> (Etxarri)	<i>urai</i> (Etxarri)	<i>istaasa</i> (Etxarri)	<i>zapoziyel</i> (Etxarri)
<i>amimora</i> (Arbizu)	<i>urei</i> (Altsasu)	<i>istresi</i> (Unanu)	<i>zapittel</i> (Arbizu,
<i>armimau</i> (Altsasu)	<i>urii</i> (Lakuntza)	<i>estosi</i> (Lakuntza)	Unanu)
<i>armimosa</i>	<i>udii</i> (Arruazu)	<i>entresi</i> (Arbizu)	<i>iyel</i> (Irañeta)
(Lakuntza)	<i>uittu</i> (Dorrao)	<i>estrasi</i> (Arruazu,	<i>apieziyel,</i>
<i>amarratza</i> (Olazti)	<i>irui</i> (Arbizu)	Uharte, Irañeta)	<i>zapieiyel,</i>
<i>imermau</i> (Arruazu)	<i>idui</i> (Unanu)	<i>txistezai</i> (Bakaiku)	<i>zapielixter</i>
<i>irmimau</i> (Irañeta)	<i>idugi</i> (Uharte)	<i>txistazi</i> (Urdiain)	(Lakuntza)
<i>irmiarmario</i>	<i>idiittu</i> (Irañeta)		<i>igualaiza</i>
(Huarte)	<i>iruki</i> (Urritzola)		(Bakaiku)
<i>imirrimau</i>	<i>iguri</i> (Olazti)		<i>ñaskar</i> (Dorrao)
(Urdiain)	<i>ibili</i> (Bakaiku)		<i>ubaxa</i> (Urdiain)
<i>mirrimarrau</i>	<i>yon</i> (Lizarraga)		<i>uberaxa</i> (Altsasu)
(Bakaiku)			

<p>pikorkatu</p> <p><i>urbeldu</i> (Etxarri)</p> <p><i>urgeldu, yalkitu</i> (Arruazu)</p> <p><i>urkaldu</i> (Bakaiku)</p> <p><i>bikortu</i> (Arbizu, Irañeta)</p> <p><i>yakurri</i> (Urdiain)</p> <p><i>yikurri</i> (Altsasu)</p>	<p>erbinude</p> <p><i>ergueniri</i> (Etxarri)</p> <p><i>erginurde</i> (Bakaiku)</p> <p><i>erguneri</i> (Altsasu)</p> <p><i>ergoniri</i> (Ergoiena, Irañeta)</p> <p><i>errekoniri</i> (Arbizu)</p> <p><i>ergunera</i> (Urdiain)</p>	<p>ganbara</p> <p><i>ganboiko</i> (Etxarri)</p> <p><i>ganbatxo</i> (Arbizu)</p> <p><i>goikoganbara</i> (Urdiain, Bakaiku)</p> <p><i>pastarda</i> (Ergoiena)</p> <p><i>safei</i> (Uharte, Irañeta)</p> <p><i>safai</i> (Altsasu)</p>	<p>txizagura</p> <p><i>pixekurre</i> (Etxarri)</p> <p><i>pixegorri</i> (Ergoiena)</p> <p><i>pixagale</i> (Lakuntza)</p> <p><i>txixakurre</i> (Burunda)</p>
<p>txolarre</p> <p><i>galartxori</i> (Etxarri)</p> <p><i>galarreko txoi</i> (Lakuntza)</p> <p><i>galtxoi</i> (Arruazu)</p> <p><i>erritxoi</i> (Unanu)</p> <p><i>erliztxoi</i> (Urdiain)</p> <p><i>paatetxoi</i> (Arbizu, Irañeta)</p>	<p>barre</p> <p><i>farra</i> (Etxarri, Arbizu)</p> <p><i>irri</i> (Ergoiena, Uharte, Irañeta)</p> <p><i>barre</i> (Burunda)</p> <p><i>parra</i> (Lakuntza, Arruazu)</p>	<p>saguzar</p> <p><i>iñerexagu</i> (Etxarri)</p> <p><i>gaubeko iñeria</i> (Unanu)</p> <p><i>gauiñere</i> (Arruazu)</p> <p><i>gauxirriñe</i> (Irañeta)</p> <p><i>xaguzarra</i> (Uharte)</p> <p><i>gauinara</i> (Urdiain)</p>	<p>zapelatza</p> <p><i>txorijale</i> (Etxarri)</p> <p><i>txorijanzone</i> (Unanu)</p> <p><i>txapelatza</i> (Irañeta)</p> <p><i>kapelats</i> (Urdiain)</p>
<p>txantxangorri</p> <p><i>txontxolangorri</i> (Etxarri)</p> <p><i>ttatlangorri</i> (Bakaiku)</p> <p><i>lepagorri</i> (Irañeta)</p> <p><i>papargorri</i> (Urdiain)</p>	<p>itogina</p> <p><i>ittefure</i> (Etxarri)</p> <p><i>itxixura</i> (Arbizu)</p> <p><i>itxexura</i> (Unanu, Arruazu)</p> <p><i>itxesure</i> (Lakuntza)</p> <p><i>itxufura</i> (Lizarragan)</p> <p><i>itxuxure</i> (Irañetan)</p> <p><i>itofina</i> (Olazti)</p> <p><i>itajura, itufara</i> (Bakaiku)</p> <p><i>itajun</i> (Urdiain)</p> <p><i>itोजना</i> (Altsasu)</p>	<p>erratz</p> <p><i>isets</i> (Etxarri)</p> <p><i>itsesillera</i> (Arruazu)</p> <p><i>eskoba latz</i> (Uharte)</p> <p><i>ilarrontzi</i> (Bakaiku)</p> <p><i>ilarruntzia</i> (Urdiain)</p> <p><i>ilarriguntziya</i> (Altsasu)</p>	<p>ikuilu</p> <p><i>estarbi</i> (Etxarri, Arbizu)</p> <p><i>okolu</i> (Altsasu)</p> <p><i>estrabi</i> (Arruazu, Uharte, Irañeta)</p> <p><i>okullo</i> (Urritzola)</p>

BIBLIOGRAFIA

- AURREKOETXEA, G, eta VIDE GAIN, X, 1993, «Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa: galdesorta», *Euskera* XXXVIII.
- AZKUE, R.M., 1969, *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- BELASCO, M, 2000, *Diccionario toponímico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, Pamiela, Pamplona.

- BONAPARTE, L.L., 1881, «Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda», *Euskara 2*, 145-151.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkera: dialektologi azterketa*, Nafarroako Gobernua.
- , 2004, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua.
- CARASATORRE VIDAURRE, R., 1993, *Barranca-Burunda*, Iruñea.
- ECHAIDE, A.M., 1984, «Erizkizundi Irukoitza», *Iker 3*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ERDOZIA, J.L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua.
- , 2003, *Sakana erdialdeko bitxikeriak: esaerak eta beste*, Nafarroako Gobernua-Bierrik.
- , 2004, *Sakanako hiztegi dialektologikoa*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua.
- , 2006, *Altsasuko euskara*, Sakanako Mankomunitatea-Altsasuko Udala.
- , 2007, *Sakanako hizkeren araberako idazkera batua*, Sakanako Mankomunitatea.
- EUSKALTZAINDIA, 2000, «Hiztegi Batua», *Euskera 45*, Bilbo.
- HUICI, V., 1899, *Manual de Gramática Bascongada*, Iruñea.
- HURTADO, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde Hegoaldeko hizkerak*, Lazkao.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua.
- , 2007, *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua.
- IÑIGO, A., 2005, *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua.
- IRIBARREN, J.M., 1984, *Vocabulario navarro*, Príncipe de Viana.
- KAMINO, P., SALABERRI, P., 2007, *Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernua.
- KINTANA, XABIER, (Atapuerca toponimoari buruzko artikulua), *Diario de Navarra*, 2007-07-30
- KNÖRR, H., ZUAZO, K., 1998, *Arabazo euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- MITXELENA, K., *Orotariko Euskal Hiztegia*.
- SALABERRI, P., ZUBIRI, J.J., 2007, *Biraoak Nafarroan bilduak*, Pamiela.
- SATRUSTEGI, J.M., 1999, «Arakil aldeko euskara», *F.L.V. 81*, 343-360.
- ZUAZO, K., 2003, *Euskalkiak Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- , 2005, *Euskara Batua. Ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.